

Oiasso Museoaren 2019ko kultur espedizioak

Oiasso Museoak, bere kultur egitarauaren barruan, 2019rako bidaia proposamenak aurkezten ditu: iraganeko kulturekin eta arkeologiarekin lotutako leku berriak ezagutzeko modu eksklusibo bat. Hiru formatu (egun bateko joan-etorria, asteburuko joan-etorria eta nazioarteko bidaia), gure kultur espedizioetara biltzeko, arkeologoak eta gai bakoitzean adituak diren historialariak lagun.

Egun bateko joan-etorria

Irtenaldia Bizkai protohistoriko eta erromatarrena: Arrolako kastroa eta Forua
2019ko martxoak 30, larunbata



Arrolako kastroa (Nabarniz) Bigarren Burdin Aroko herrixka bat da, K.a. III. eta I. mendeen artekoa. Aro horretako Bizkaiko herrixkarik handiena da, ekialdeko Kantauriko nagusia, eta Euskal Herri osoan egoerarik onenean daudenetako bat. Babes garrantzitsuak zituen kastro honek, hala nola lurrezko eta harrizko harresi lodi bat, baita harresian bermatzen ziren etxebizitzak ere, zeinen hondakinak zutik dauden oraindik. Erromatarrek iritsi

zirenean, ordea, hutsik gelditu zen kastroa, erromatarrek nahiago izaten baitzuten itsasertz eta ibaiertzetan kokatu.

Aztarnategi arkeologikoaren eta interpretazio zentroaren bisitaldi gidatua egingo dugu – Arratzun dago interpretazio zentroa–, eta, Arratzun bertan bazkaldu, eta erromatarren garaiko Foruko aztarnategia bisitatuko dugu, Urdaibaiko itsasadarraren bazterrean.

Erromatarren kokaleku bat zen Forua, eta latinezko *forum* hitzetik hartu zuen izena, zeinak “plaza edo gune publiko irekia” esan nahi zuen. Kronologiaren arabera, K.o. I. mendearen



erdialdean sortu zen, baina K.o. II. mendean garatu zen gehien. K.o. IV. mendean, ordea, hutsik geratu zen: orduan, bertako biztanleak beste habitat batzuetara lekualdatu ziren, hala nola Peña Forua haitzulora, zeina gertu dagoen.

Herrikkako jardun ekonomikoa metalurgiarekin eta merkataritzarekin lotuta zegoen, eta, herrixa itsasadarraren oinean zegoela-eta, erromatar produktuak Bizkaian sartzeko eta Ereñoko marmola eta inguruko burdina Kantauri itsasoko gainontzeko lurraldeetara esportatzeko ibai portu esanguratsu bat izan zen. Ildo horretatik, gaur egun, hainbat erabilera zituzten askotariko hamalau bat egiturak irauten dute zutik.

Bidearen zailtasuna: ertaina

Prezioa: 78 euro

Prezioak barnean hartzen dituenak: bidaia autobusez, aipatutako leku arkeologikoetako sarrera, bisita gidatuak langile espezializatuen eskutik, bazkaria Arratzun eta bidaia aseguru.

Nazioarteko bidaia

Bulgaria: Traziarren altxora

Maiatzak 16-27



Gaur egun Bulgaria eratzen duten lurak Europako lehenengo zibilizazioetako batzuen sorlekua izan ziren, azken aurkikuntzek frogatzen dutenez, eta Bulgariako kultur aberastasuna, historia eta aztarna arkeologikoak munta handikoak dira.



Gaur egun Bulgaria eratzen duten lurretan, antzina, traziar zibilizazioa bizi izan zen, bidaia honen protagonista, eta, traziarren altxorren bila, hainbat eta hainbat monumentu zoragarri utzi zituztenen aztarnei jarraituko diegu: Kazanlak, Aleksandrovo eta Svestxariko hilobiak; Panagiuristxe, Rogozen eta Valtxitrango altxorak; eta Perperikon, Starosel, Kozi Gramadi eta Beglik Taxeko santutegi eta tenpluak. Bertan, traziarren munduaren sofistikazioa agerian geldituko da monumentu hilobietako dekorazio pintatu dotoreetan eta bitxi finetan.



Traziarren mundura hurbiltzeaz gain, Historiaurreko aztarnategiak, basilika paleokristauak, Erdi Aroko elizak, monasterio ortodoxoak eta museo historiko arkeologikoak hartuko ditu barnean bidaia. Bisitatuko ditugun hirien artean, berriz, aipatzekoa da Plovdiv, Europako zaharrenetako bat, Troia eta Mizenas mitikoak sortu ziren aldi berean sortua: 2019ko Kultur Hiriburua da Plovdiv, eta erromatarren garaiko hainbat aztarna ditu, hala nola foroa, estadioa, gotorlekua eta antzokia.

Pertsona bakoitzeko prezioa gela bikoitzean:
1699 euro

Pertsona bakoitzeko prezioa banako gelan:
1944 euro

Prezioak barnean hartzen dituenak: Loiuko aireporturako bidaia Irundik eta Donostiatik, Bilbo-Paris-Sofia eta Sofia-Paris-Bilbo hegaldiak, Bulgaria barneko bidaia autobusez, hotelak

(ostatua eta gosaria), bi bazkari, agur afaria, aipatutako leku arkeologikoetako sarrera, bisita gidatuak langile espezializatuen eskutik eta bidaia aseguru

Asteburuko joan-etorria***Calagurris Iulia* (Calahorra) eta *Contrebia Leucade*****2019ko irailak 20, 21 eta 22**

Calagurris Nasica Iulia K.a. I. mendean gune indigena baskoi baten gainean fundatutako erromatar hiri bat izan zen. Leku estrategikoan zegoenez gero Ebroko haranean, denbora laburrean, erreferentziazko bihurtu zen Erromatar Inperioarentzat ikuspuntu militar, administratibo eta ekonomikotik, eta erreferentziazkoa izan zen Hispaniako iparraldea kontrolatzeko ere. Hiri garrantzitsua zela-eta, nabarmen handia zen, monumentu publiko ugariak, eta erromatar bizimodu eta kulturaren eskualde mailako erreferente bilakatu zen. K.o. III. mendetik aurrera, berriz, Erromatar Inperioa kristautu egin zen pixkanaka, eta, horren ondorioz, Ebroren iparraldeko lurak ebanjelizatze prozesuaren erreferente ere bihurtu zen hiria: ordutik aurrera ere, leku gailena izan zen egitura politiko administratibo kristau berrietan. Ildo horretatik, Emeterio eta Zeledonio soldadu martiri ezagunei esker, Berant Antzinarotik aurrera Erromatar Inperioan nagusi izan zen ikonografia kristauaren sarean sartzeko aukera izan zuen.

Contrebia Leucade, berriz, K.a. II. mendean eraikitako zeltiberiar hiri bat izan zen, Erromak konkistatu zuenean haren mendeko udal administrazio sistemaren barruan sartu zena. Erromatar Inperioak gainbehera egin zuenean, ordea, bisigodoek hartu zuten, baina, IX. mendean, Goiz Erdi Aroan, hutsik gelditu zen. Balio geostrategiko handia zuen, Alhama ibaiaren ibilbidean zegoela-eta Ebroko haranaren eta Gaztelako goi lautadaren arteko pasabidea kontrolatzen baitzuen. Alde horretatik, hiriko babesek, harresiek eta babes hobiak iraun dute egoerarik hoberenean, urez hornitzeko sistemarekin eta estolderiarekin batera.

Larunbatarekin bisitatuko dugu Calahorra, eta Erromanizazioaren Museoa, erromatar zirkua, La Clínica erromatar villa eta hiria babesten zuten harresiaren barruan zutik jarraitzen duten zatiak ikusiko ditugu. Contrebia Leucade eta interpretazio zentroa, berriz, indusketa lanen arduradunaren eskutik bisitatuko ditugu, haren gidaritzapean.

Pertsona bakoitzeko prezioa gela bikoitzean: 268 euro**Pertsona bakoitzeko prezioa banako gelan: 350 euro**

Prezioak barnean hartzen dituenak: bidaia autobusez, aipatutako leku arkeologikoetako sarrera, bisita gidatuak langile espezializatuen eskutik, bazkaria Aguilar del Río Alhaman eta bidaia aseguruak-

Informazio gehiago:

Oiasso Museoa

943.63.93.53

actividades.oiasso@irun.org